

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

160/2025 Foru Agindua, maiatzaren 29koa, zeinaren bidez adierazten baita iraungi dela Barrundiako Udalarena den "Monte Alto" izeneko onura publikoko 469 zenbakiko mendiaren mugaketa eta mugarritze prozedura

Mendi Zerbitzuak jakinarazi duenez, Barrundiako Udalaren jabetzakoa den "Monte Alto" izeneko 469 zenbakiko onura publikoko mendia mugatzeko eta mugarritzeko prozedura Mendi Zerbitzuak bideratu zuen, eta 1990eko uztailaren 18ko ALHAOn (82. zk.) argitaratu zen Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 26ko 1013/1990 Foru Dekretua, mendiak mugaketa egoeran adierazten zituena, eta mugakide ezagunei iragarkiaren testua jakinarazi zitzaion gutun bidez, hartu izanaren adierazpenarekin.

Neurketa lanak 1990eko urriaren 11n eta 26an egin ziren, horretarako egindako aktetan jasotzen den bezala, eta 1992ko maiatzaren 13ko ALHAOn (53. zk.) argitaratu ziren espedientearen ikus-taldiaren iragarkia eta zegokion erreklamazio epea. Bi alegazio aurkeztu ziren, garaiz eta forma egokian.

Aurkeztutako erreklamazioen ondoren, Ingurumeneko zuzendariak erabaki zuen mugaketa espedientea izapidetzea bigarren fasean, eta espedienteari hasiera eman zitzaion, 2001eko martxoaren 23ko ALHAOn (34. zk.) mugaketa egoeraren adierazpena argitaratu zenean.

2001eko ekainaren 28an eta irailaren 14an egin ziren erreklamaturako bi tarteetan neurketa lanak, eta 2001eko urriaren 19ko ALHAOn (119. zk.) argitaratu ziren: aktek osatutako espedientearen ikusaldiaren iragarkia, plano topografikoa eta behin-behineko mugarritzea, eta erreklamazio aldiaren hasieraren jakinarazpena.

Emandako epean ez zen alegaziorik aurkeztu, baina espedientea ez da izapidetzen jarraitu; beraz, ez da ebazpena eman dagokion epean.

Ondorioz, 2025eko maiatzaren 21ean, Mendi Zerbitzuak proposatu zuen Barrundiako Udalaren jabetzako 469 zenbakiko onura publikoko mendia mugatzeko eta mugarriak jartzeko prozedura iraungi dela adieraztea.

Nahitaezko txostenak aztertu dira, eta kontuan hartuta zer xedatzen duten Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. eta 95. artikuluek eta Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren dagozkien artikuluek, eta Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura 2023-2027 legegintzaldirako zehazten duen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak —Diputatu Nagusiaren ekainaren 28ko 78/2024 Foru Dekretuaren bidez aldatua— ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Iraungitzat jotzea Barrundiako Udalarena den eta udalerrri horretan kokatuta dagoen 469 zenbakiko onura publikoko mendia mugatzeko eta mugarritzeko prozedura.

Bigarrena. Agintzea iraungitako espedienteko egintza independenteek ondorioak izan ditzatela eta egintza horiek gehi daitezela, besteak beste interesdunak eduki ditzaketan eskubideak egiaztatzeko aurkeztutako agiriak, neurketen aktak, mugatutako mendiaren planoa eta haren mugarritzea.

Hirugarrena. Ebazpen hau prozedurako interesdunei jakinaraztea eta ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Administrazio bidea amaitzen duen foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, jakinarazi eta ondorengo egunetik aurrera, bi hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, Nekazaritza Saileko foru diputatuari, bat etorritik Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikulua xedatutakoarekin, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua ezartzen duenarekin lotuta.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 29a

Nekazaritza Saileko foru diputatua
NOEMI AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria
DAVID FERNANDEZ SARABIA